


KULTURA-OHITUREI BURUZKO

PANELA

3. JASOALDIKO DATUEN ANALISIA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
2.	Aztergia	4
3.	Emaitzak	6
3.1.	Aldaketa-ibilbideen deskribapena	6
3.2.	Aldaketaren pertzepzio subjektiboa	10
3.3.	Kultur arloko parte-hartze mailaren bilakaera baldintzatzaileak	16
3.4.	Gaineratutako aldagai berrien azterketa	26
4.	Azken iruzkina	29
	ERANSKINA	30

Kulturaren Euskal Behatokiak, Ohituri buruzko Panelaren bidez, herritarren kultura-ohituren berri jaso eta eremu horretan sakontzea du xede. Ikerketa hori egiteko, lagin-unitate baten jarraipena egiten da denbora jakin batean, jarraipen horrek maila indibidualean aldaketa-patroien ezaugarriak zehazteko lagungarri diren inguruabarrak behatzeko aukera ematen baitu.

Kultura kontsumitzen duten 204 pertsonak osatzen dute lagina. Hura orekatzen duten 3 irizpidetatik abiatuz eraikitzen da, aldaera hauen arabera:

- Lurralde Historikoak (Araba % 15,7, Gipuzkoa % 35,3, Bizkaia % 49,0)
- Sexua (emakumeak % 50, gizonak % 50)
- Adina (18-27 urte bitartekoak % 50 eta 28-37 urte bitartekoak % 50)

Hirugarren jasoaldi honetan, ordezte-tasa % 9,8koa izan da, eta oinarrizko irizpideei erreparatuz ordeztu dira. Landa-lana 2017ko irailaren 22tik urriaren 27ra bitartean egin zen.

Txostenaren muina osatzen duen blokea 4 ataletan dago banatuta, eta alderdi hauek aztertzen dira horietan:

1. Aldaketa-ibilbideak: Hautemandako aldaketa-ibilbideak deskribatzen dira, zenbait aldagaien araberrako partaidetza-mailen indizeak eraikiz. Horrek igoera-, mantentze- edo jaitsiera-ibilbideak eragiten ditu, partaidetza moduen arabera (hartzailea, sortzailea edo digitala).
2. Aldaketaren pertzepzio subjektiboa: Norberak hautemandako bilakaeraren azterketa—igo, mantendu edo jaitsi egin den kontuan hartuta—, emaitza objektiboekin erkatuz (aurreko atalean bezala, emaitzak partaidetza-mailen indizeak eraikiz lortzen dira) eta inkesta betetzen dutenek ematen dituzten arrazoiak aztertuz.
3. Kultur arloko parte-hartze mailaren bilakaeraren baldintzatzaileak: Azalpen-faktoreetan izandako aldaketek kultur arloko parte-hartzearekin lotutako igoera- edo jaitsiera-ibilbideen gainean duten inpaktuaren azterketa.
4. Jasoaldi honetan sartutako azalpen-aldagaien erkaketa.

Emaitzak eskema modura aurkezten dira, eta, kasu bakoitzean, helburuak, neurgaiak, neurtzeko modua, emaitzak eta interpretazio-aipu bat adierazi dira.

Tradizionalki, kultura-ohiturekin lotutako ikerketek "kultura-kontsumoaren" ikuspegitik ikertu izan dute partaidetza. Oro har, kultura-kontsumoaren ideia emanaldi-guneek duten arrakastarekin eta liburuak eta prentsa irakurtzeko ohituren maiztasunarekin lotzen da.

Horrenbestez, norbanakoak kultur arloan duen parte-hartzearen ikuspegi pasiboa jasotzen da. Izan ere, norbanako hori ikusle edo bezerotzat hartzen da, kultura hartzailetzat. Kultur arloko publikoaren gaineko ikusmolde hori, lehenik eta behin, kulturak arte eta ondare gisa duen ikuskera hertsia ondo da. Horrek ikerketaren baitako jarduerak zedarritzen ditu: antzerkia, musika, museoak, kulturguneak, zinea eta abar. Bigarrenik, kulturaren demokratizazioaren paradigmen ondo ere bada; izan ere, sarbide-aukerak berdintzeko xedearekin, eremu pasiboan kokatzen du norbanakoa.

Kultura-politikari, haren helburuari eta haren paradigmatik buruzko bi ikuspegi horien aurrean, ikuspegi osagarriak garatu izan dira. Alde batetik, kultura arte eta ondaretzat hartzen duen ikuspegi hertsia, kultura-industriak ez ezik, sormenezkoak ere gaineratu zaizkio. Gainera, aldaketa digitalaren eraginez bestelako dimentsio bat txertatu da ezinbestean.

Beste alde batetik, kultura-sarbidearen demokratizazioak aurrera egin ahala eta sarbide-aukera formalean berdintasunezko banaketa garatu ahala, argi geratu da ikuspegi hori, ezinbestekoa bada ere, ez dela nahikoa kulturarako sarbidea eraginkorra izan dadin, ikuspegi horretara mugatuz gero mantendu egiten baitira kultura-baliabideetarako sarbiderako gizarte-desberdintasunak. Horren aurrean, paradigma osagarri bat garatu da pixkanaka: kultura-demokraziarena. Paradigma horren arabera, norbanakoak, ikusle edo kontsumitzaile soilak ez, baizik eta eragile aktiboak, sortzaileak eta kulturaren eroaleak ere badira. Paradigma horri helduta, bada, ezinbestekoa dugu berriro hausnarketa egitea eskaini beharreko galderen eta erantzunen gainean. Kontua da ez da soilik kultura-kontsumorako aukerak guztion eskura jartzea, baizik eta kultura-trebetasunak garatzeko aukerak eta tresnak ematea.

Horrek dimentsio anitzeko ikuskera batean kokatzen du parte-hartzea:

1. Lehenik eta behin, ikuskera klasikoarekin bat etorritik, badago parte hartzeko modu bat, pasibo edo hartzailea, non eragilea kulturaren ikuslea (hartzailea) baita.
2. Bigarrenik, badira kulturaren parte hartzeko modu aktibo edo sormenezkoak. Jarduera horietan, eragileak protagonismoa hartu eta bere eragiletasuna garatzeko aukera ematen zaio. Arte-jarduera amateurak eta kulturaren asoziazionismoa dira parte hartzeko modu horren adibide.
3. Azkenik, aldaketa digitalak dimentsio berri bat sartzen du, bitarteko ezberdin batetik parte-hartzeko modu sortzaile edo hartzailea ahalbidetuz, berezko abaguneak eta mugak dituen. Horrela, parte-hartze digitalaz ere hitz egiten da.

Hala, Panelaren kasurako, parte hartzeko modu bakoitzak zer eragin duen erakusteko inkestaren itemetatik abiatuz:

- Esku-hartze hartzaileak kultura-kontsumo pasiboa hartzen du oinarritzat, jarduera erlatibo ezberdinekin lotutako asistentzia- eta maiztasun-mailetatik abiatuz. Horrela, horietako bakoitzaren intentsitatea neurtu eta bereizten da. Zehazki: zenbat liburu irakurtzen den, eta zenbatetan joaten den zinema, kontzertu, ikuskizun eta erakusketetara.
- Parte-hartze sortzailean, berriz, maila amateurreko arte-jarduerak egiten ote diren aztertzen da (guztira 13 jarduera; esaterako, pintatzea, idaztea, bideoak egitea etab.). Horrela, kasu horretan, aurrekoan ez bezala, ez da bereizketarik egiten, jarduera bakoitza gauzatzeko intentsitate-mailaren arabera.
- Azkenik, parte-hartze digitalean, hartzaile alderdia baino ez da aintzakotzat hartzen. Hau da, jardueren kontsumoa edo gauzate digitala hartzen da kontuan (bitarteko digitalak hautatzea irakurtzeko, zinema eta erakusketak ikusteko eta abarretarako). Irakurketa erraztearren, emaitzak aipatzen direnean “parte-hartze digitalaz” hitz egin arren, “parte-hartze digital hartzaileaz” hitz egingo da.

Panelaren ekarpen nagusia denboraren joanean kultur arloko parte-hartze mailetan pertsonengan jazotzen diren aldaketak azaltzeko gaitasuna da. Azaldu den moduan, parte hartzeko 3 moduetatik abiatuz egiten da: hartzailea, sortzailea eta digitala; xedetzat hartuta ulertzea zein faktorek duten eragina parte-hartze mailetako gorabeherekin eta zer-nolakoa den txosten honetako aztergaia.

3.1. Aldaketa-ibilbideen deskribapena

Xedea

- Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbideak deskribatzea

Zer neurtzen da?

Aldaketa-ibilbideen gaineko behaketa da, 2. eta 3. jasoaldietako parte-hartze mailak alderatuz egina. Hiru aldaketa-ibilbide neurtzen dira: igotzea, mantentzea eta jaistea. Adierazitako hiru parte-hartze moduetako bakoitzarekin (hartzailea, sortzailea eta digitala) egiten da neurketa hori.

Nola neurtzen da?

Aztergai den aldagaia 3 urratsetan eraikitzen da:


1. Lehendabizi, parte-hartze modu bakoitzerako 0-1 bitartean aldatzen den indize bat eratzen da: 0 parte-hartze nuluaren maila da, eta 1 gehieneko parte-hartze maila. Norbanakoak 0 eta 1 zenbakien artean kokatzen dira, indizeak osatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze mailaren arabera (Eranskinean zehaztua). Hori 2. jasoaldiko eta 3. jasoaldiko datuetarako egiten da.
2. Bigarrenik, 3. jasoaldian norbanako bakoitzak indize bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) eskuratutako puntuazioari 2. jasoaldian horietan eskuratutako puntuazioa kentzen zaio. Era horretara, jasoaldien arteko diferentzia lortzen da.
3. Hirugarren urratsean, estatistikaren ikuspuntutik jorratzen da; hala, modu jarraituko aldagai kuantitatibo bat jasotzen da. Aldagai hori hiru kategoriatan birkodetzen da, eta, hartara, kategoriaren araberrako aldagai kualitatibo bat sortzen da: Igotzea, mantentzea eta jaistea. Jasoaldien arteko diferentzia oso txikia bada, mantendu balitz bezala hartzen da¹.

Emaitzak

Orokorki, 1. grafikoak adierazten duenez, joera nagusia parte-hartze mailak mantentzekoa da. Aldaketen balantza, parte-hartze motaren araberrako kasuen % 20-30 inguru ordezkutzen duena, negatiboa da.

¹ Diferentzia txikia den zehazteko erabilitako irizpidea dispersio tipikoko balioa 0 ingurukoa izatea da.

1. grafikoa. Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbideen laburpena



Esku-hartze hartzailea

Joera mantentzekoa da argi eta garbi, nahiz eta norbanakoen % 30ean esku-hartze hartzaile mailak ezberdinak izan. Aldaketak soilik kontuan hartuz, jasoaldi honetan esku-hartze hartzaileak beheranzko joera erakutsi du: norbanakoen % 20,2an jasoaldien arteko diferentzia negatibo adierazgarria ikusten da, eta % 10,9an kontrako joera ikusten da.

Gainera, bigarren jasoaldiko parte-hartze indizeetatik abiatuz identifikatzen denez, nagusiki batezbestekoaren gainteko parte-hartzea zuten norbanakoen artean egin du behera kontsumoak, eta, era berean, batezbestekoaren azpiko parte-hartzea zuten norbanakoen artean egin du gora (1.1. eranskina).

Azkenik, 3. jasoaldian parte-hartze hartzailetako maiztasunik handieneko jarduerak azpimarra daitezke:

3. taula. Maiztasunik handieneko esku-hartze hartzaileko jarduerak	
	Ehunekoa (3. jasoaldia)
Kontzertuak	% 80,4
Liburuak	% 75,5
Zinema	% 73,5
Ikuskizunak	% 60,8
Erakusketak	% 59,3
Liburutegiak	% 51

Parte-hartze sortzailea

Parte-hartze sortzailearen kasuan aldaketarako joera askoz ere txikiagoa da. Ikusten da norbanakoen % 80k mantendu egiten duela parte-hartze sortzaile maila. Aitzitik, soilik aldaketa kontuan hartuta, haren ezaugarria da ia beti negatiboa dela.

Jaitsiera, bereziki, 2 jarduera edo gehiago egiten zituztela adierazten zutenen artean ematen da (1.2. eranskina).

Datu horiei esker ondorioztatzen da zer 4 jarduera diren maizkoenak:

4. taula. Maiztasun handieneko parte-hartze aktiboa duten jarduerak	
	Ehunekoak (3. jasoaldia)
Musika-tresna bat jotzea	% 14
Idaztea	% 10,9
Dantza eta balleta	% 7,3
Argazkiak ateratzea (lantegiak, ikastaroak)	%7,3

Ikusten den moduan, ez dago bereziki nabarmentzen den jarduerarik (gehien egiten dena % 14 gehienez). Beraz, interesak jarduera guztien artean banatzen dira.

Puntu horretan, parte-hartze aktiboko dimentsio ezberdin bat izateagatik indizean sartzen ez bada ere, 3. jasoaldian ikusten denez, % 17,6k elkarteren batean parte hartzen du —oso aldaketa txikia 2. jasoaldiko % 16,5eko ehunekoarekin alderatuta—.

Parte-hartze digitala

Parte-hartze digitalaren kasuan aurrekoetan ikusten denaren antzeko patroia ikusten da, mantentze-indizea oso handia, jaitsiera % 16koa eta igoera % 11koa izanik.

Kasu honetan, interesgarria da hautematea zein diren maiztasun handienarekin egiten diren jarduerak.

5. taula. Maiztasun handieneko parte-hartze digitaleko jarduerak	
	Maiztasuna (3. jasoaldia)
Filmak, telesailak edo bideoak ikustea	% 92,7
Musika entzun edo deskargatzea	% 69,4
Liburuak irakurri edo deskargatzea	% 59,6
Liburutegira joatea	% 23,3
Kontzertuak entzutea	% 16,6
Ikuskizunak ikustea	% 13,5
Erakusketak ikustea	% 3,6

Filmak, telesailak edo bideoak ikustea da jarduera hedatuena, ia % 100ean, parte-hartze digitalean. Oro har, bitarteko digitalean gertatzen denak antzekotasun handia du parte-hartze hartzailean gertatzen denarekin. Esate baterako, zinema da, kasu honetan ere, jarduera ohikoenetako bat. Musika eta irakurketaren kasuan ere, bitarteko digitala interes horietarako bitarteko egokia da, eta gainerako jarduerak askoz ere hedapen murriztagoa dute. Hala izanik ere, % 13,5 eta % 16,6 bitartekoa da azken 6 hilabeteetan Interneten kontzertuak entzun edo ikuskizunak ikusi dituztenen ehuneko.

Interpretazioa

Oro har, mantentzerako joera da arruntena. Joera nagusia, espezifikoki, parte-hartze sortzailean ematen da. Horrek, jarduera egonkorragoa dela adierazten du. Parte hartzeko modu bakoitzaren izaerak badu eragina hautematen diren aldaketetan. Parte-hartze sortzaileak —hots, espezifikoki amateurrak diren jarduera artistikoak egiteak— etenik gabeko erregularitasun handia eskatzen du, nahiz eta bat-batean amaitu (edo hasi). Aitzitik, esku-hartze hartzailea gradualagoa izan daiteke. Horrela, esate baterako, antzerkira joatea nekez izango da aldi behin musika-tresna bat jotzea bezain jarduera erregular eta jarraitua.

Azaldutako emaitzak xehetasun gehiagoz behatuz gero ikusten denez, igoerak eta jaitsierak patroia berari jarraituz gertatzen dira: 2. jasoaldian parte-hartze txikiena zutenen artean igo da parte-hartzea, eta gehien parte hartzen zutenen artean murriztu da (1.1, 1.2 eta 1.3 eranskinak). Horrenbestez, gorabehera bat identifikatzen da, jardunak mantentzeko joerarekin indartua.

Horrez gain, parte-hartze sortzaileari so —non aldaketarako joera funtsean beheranzkoa baita—, ikusten da kontsumoa, bereziki, 2. jarduera edo gehiago egiten zituzeala adierazten zutenen artean jaitsi dela (1.4. eranskina). Zalantzarik gabe, berriro ere jardueraren izaerari erreparatuz, bi jarduera edo gehiago egiteak eskakizun-maila handia du astiari eta dedikazioari dagokienez. Horrenbestez, ulergarria dirudi egoera hori denboran zehar askorik ez luzatzea..

3.2. Aldaketaren pertzepzio subjektiboa

Xedea

- Aldaketaren pertzepzio subjektiboa aztertzea.
- Aldaketaren arrazoi subjektiboak aztertzea.
- Eraitza subjektiboak eta eraitza objektiboak erkatzea

Zer neurtzen da?

Azalduetako xedeetarako, ezinbestekoa da neurri hauek kontuan hartzea:

- **Ibilbide subjektiboa:** norbanako bakoitzak bere aldaketa-ibilbidearen gainean duen pertzepzioa —hots, igo, mantendu edo jaitsi egin den—. Horrela, aldaketaren inguruko pertzepzio orokorra neurtzen da, esku-hartze hartzailearen, sortzailearen eta digitalaren artean bereizketarik egin gabe. Pertzepzio subjektibo bat da, norbanako bakoitzak hautematen duena.
- **Arrazoi subjektiboak:** parte-hartze maila orokorra igo, mantendu edo jaitsi izana justifikatzeko norbanakoek emandako arrazoiak.
- **Ibilbide objektiboa:** Gainera, aurrez parte-hartze hartzailean, sortzailean eta digitalean ibilbideen deskribapenerako erabilitako neurriak berriro aztertzen dira, pertzepzio subjektiboarekin erkatzeko. Aurreko atalean “ibilbideak” baino aipatzen ez baziren ere —alegia, “objektiboa” ñabardura gaineratu gabe (datuak eta kalkuluak konbinatzearen ondorioz, eta ez norberak duen zuzeneko pertzepzioaren ondorioz, zehaztutako ibilbideekin lotuta)—, kasu honetan baliagarri da bi hurbilketak bereizteko.

Nola neurtzen da?

Ibilbide objektiboa aurreko atalean bezalaxe neurtzen da (indizeak kalkulatu, jasoaldien arteko aldeak ikusi eta goera, mantentzea eta jaitsiera kategorietan birkodetzea egiteko prozesuaren ondorioz).


Ibilbide subjektiboa aldagai jakin bakarra erabiliz neurtzen da, zeinaren arabera inkesta betetzen zutenek jasoaldien artean zuten parte-hartze mailaren bilakaera balioesten baitzuten. Hala, beren ustez, parte-hartze maila igo, jaitsi edo mantendu egin ote zuten adierazten zuten.

Arrazoi subjektiboek, era berean, arrazoi-zerrenda batetik abiatuz egindako bi galderarekin dute zerikusia. Lehenengoan, beren ustez, eragina duten arrazoi guztiak hautatzen dituzte —bat baino gehiago hauta daiteke—. Bigarrenean, beren ustez, arrazoi nagusiak izan direnak hautatzen dituzte.

Eraitzak

Lehenik eta behin, ibilbide subjektiboan, norberak hautemandakoen, ehunekoak erakusten dira. Bertan ibilbide objektiboekin alderatuz lehen ezberdintasun bat hautematen da: norbanakoek, egiaz, objektiboki, hautematen dena baino aldaketa gehiago hautematen dute.

2. grafikoa. Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbide subjektiboak (norberak hautemanak). laburpena (%)



Ondoren, ibilbide subjektiboaren (norberak hautemana) eta ibilbide objektiboaren (datuak konbinatuz eraikia) arteko harremanean sakontzen da.


Kontuan hartu behar da, ibilbide subjektiboak parte-hartze orokorrarekin lotzen badira ere, ibilbide objektiboek parte-hartze modu bakoitzerako neurri jakinak zehazten dituztela. Hurrengo taulan parte-hartze modu bakoitzari dagokionez jasoaldien arteko ezberdintasuna alderatzen da, ibilbide subjektiboari erreparatuz.

6. taula. Aldaketa-ibilbide objektiboa, aldaketa-ibilbide subjektiboarekin erkatuta, kultur arloko parte-hartzeari dagokionez (moduen arabera)

		Aldaketaren ibilbide subjektiboa		
		Igo egin da	Mantendu egin da	Jaitsi egin da
Aldaketaren ibilbide objektiboa	Parte-hartze hartzailean ikusitako aldea	0,0055	-0,0222	-0,0447
	Parte-hartze sortzailean ikusitako aldea	-0,0507	-0,0531	-0,0589
	Parte-hartze digitalean ikusitako aldea	0,0319	-0,0440	-0,0026

Irakurketa erraztearren, taulako emaitzak formatu grafikoan ere eskaintzen dira.


3. grafikoa. Aldaketa-ibilbide objektiboa, aldaketa-ibilbide subjektiboarekin erkatuta, kultur arloko parte-hartzeari dagokionez (moduen arabera)



Emaitzek erakusten dutenez, esku-hartze hartzailan ikusten da koherentzia handiena emaitza objektiboen eta pertzepzio subjektiboaren artean. Emaitzak xehetasunez begiratzen badira, esku-hartze hartzailan gehiago dira behar bezala sailkatutako kasuak:

- Kontsumoa murriztu dutela diotenen artean, jaitsiera objektibo adierazgarri baten sailkapenarekin bat dator % 38,5. Objektiboki, % 48,7ren kasuan ez da alde adierazgarri ikusten jasoaldien artean, norberak kontsumoa jaitsi egin dela dioen sailkapenean kokatu arren bere burua.
- Kontsumoa mantendu dutela diotenen artean, % 50,4 bat dator objektiboki zehaztutako mantentze-kategoriarekin, zeinak aldaketa txikiak ez baititu kontuan hartzen, ez jaitsiera modura ez igoera modura.
- Azkenik, kontsumoa igo egin dutela diotenen artean, % 42,9 bat dator igoera-kategoria objektiboarekin.

4. grafikoa. aldaketa-ibilbide subjektiboaren eta objektiboaren arteko alderaketa parte-hartze hartzailaren kasuan (%)



Alderaketa albo batera utzita, atal honetan subjektuek beren aldaketa-ibilbidea azaltzeko ematen dituzten arrazoiak aztertzen dira, aldaketa-ibilbide hori edozein motatakoa izanik ere. Arrazoi orokorrak (Erantzun bat baino gehiago) eta arrazoi nagusizat jo direnak neurtzen dira.


Erantzun anizkun guztiak abiapuntutzat hartuta, hurrengo rankinga identifikatzen da (ehunekoen batura % 100etik gorakoa da; izan ere, norbanako bakoitzak kategoria bat baino gehiago hauta dezake):

1	Dudan astia	% 76,4
2	Denbora librerako ditudan gainerako interesak (lagunak, beste zenbait zaletasun etab.)	% 66,5
3	Kultura-eskaintzarekiko dudan interesa	% 54,5
4	Esku-hartzea partekatzeko lagunak	% 52,4
5	Hainbat erantzukizun pertsonal (familia zaintza, ikasketak etab.)	% 50,8
6	Nire inguruan dagoen kultur eskaintza aukera	% 50,3
7	Gomendioak (lagunak, prentsa, Internet etab.)	% 47,1
8	Eskuragarri ditudan kultura-jarduerei buruzko informazioa	% 46,6
9	Jardueren prezioa	% 41,9
10	Kultura-jardueretikiko asebetetzea	% 40,8
11	Abonuak, deskontuak, kultura-txartelak etab.	% 24,1
12	Gauza bera Internetez egiteko aukera	% 18,3
13	Bestelakoak	% 2,1

Astia da gehien errepikatzen den arrazoi, ondoren denbora librerako beste zenbait interes izatea, eta, are distantzia handiagoa (22 puntukoa), kultura-eskaintzarekiko interesa eta kultura-ekintzetan lagunekin parte hartzeko aukera. Hala, 1., 2. eta 5. arrazoiak astiarekin dute zerikusia batez ere; beraz, faktore nagusizat jotzen da. Ingurune pertsonaleko lagunak eta ingurune fisikoan den kultura-eskaintza ere faktore garrantzitsutzat jotzen dituzte norbanakoei, eta baita interesa ere. Prezioa, abonua eta ekintza bera Internetez egiteko aukera —guztiak ere kulturarako irisgarritasunari lotutako pizgarri ekonomikoei lotuak— ez dira horren garrantzitsutzat jotzen.

Arrazoi nagusien ikerketak, norbanakoen arabera garrantzi handien duenari so, honako emaitzak erakusten ditu, astia izatea izanik faktore garrantzitsuena, bereziki jaitsieraren kasuan, baina ez kasu horretan soilik:

5. grafikoa. Inkesta bete dutenek adierazten dituzten arrazoi nagusiak beren aldaketa-ibilbide subjektiboaren arabera (%)



Astia izatea da, egoera guztietarako, aipatu duten arrazoi nagusietako bat. Maila subjektiboan, astia izateari buruzko pertzepzioa erabakigarria da, lehen txostenean aztertutako asti objektiboari buruzkoa bezalaxe (edo gehiago).

Igoeraren kasuan, bigarren postuan kokatu dute nolako eragina duten inguruneak eta ingurune horrek ematen dituen kultura-eskaintzarako aukerak, eta bereziki aipatu dituzte eskaintza hori partekatzeko lagunak; aditzera ematen dute, halaber, gizartearen eragina ere badela, oharkabean bada ere. Azkenik, nabarmentzeko modukoa da kultura-jarduerekiko asebetetze faktorea.

Jaitsieraren kasuan, astiaz gain, erantzukizun pertsonalak izatea nabarmentzen da argiro. Astia izatearekin zerikusi argia duen faktorea da. Hala, guztira, % 50 baino gehiago dira asti-kontua arrazoi nagusitzat aipatzen dutenak. Prezioa eta kultura-ekintzak partekatzeko lagunak, berriz, atzerago dira, 3. eta 4. postuetan.

Hortik aurrera, gainerako arrazoiak ez dira horren ohikoak. Interesgarria da nabarmentzea parte-hartzea mantendu eta igotzeko gomendioek badutela nolabaiteko garrantzia, txikia bada ere, baita eskuragarri den informazioak ere.

Mantentzeari dagokionez, astiaz gain, ingurunean kultura-eskaintza izatea eta eskaintza hori partekatzeko lagunak izatea nabarmentzen dira.

Azkenik, azpimarratu behar da, ibilbide objektiboari gagozkiola, arrazoi subjektibo nagusiaren ikerketak erakusten duenez (2. [eranskina](#)), denbora faktorea kontsumoaren jaitsierarekin lotzen dela gehienbat, eta ibilbide subjektiboaren bidezko azterketan denbora faktorea kontsumoa mantentzearekin lotzen dela.

Oro har, askoz ere banatuago dago arrazoiaren garrantzia, eta bakar batek ere ez du ia % 15 gainditzen. Lagunek eta norbere erantzukizunak garrantzitsuak izaten jarraitzen dute, eta ingurunean kultura-eskaintza izateko aukerak leku nabarmena hartu du berriro kontsumoa mantendu edo igotzeko.

Interpretazioa

Norbanakoek beren burua zein kategoriatan finkatu duten kontuan hartuz agertzen diren ezberdintasunak aztertzean ikusten denez, norbanakoei kultur arloko parte-hartzeari buruz orokorki galdetzen zaienean, zehazki "esku-hartze hartzailea" izenekoan pentsatuz ematen dituzte erantzunak. Gainera, antzematen da norbanakoek egiaz dagoena baino mantentze-maila txikiagoa hautematen dutela eta, aldiz, igoyerak edota jaitsiera mugaz gaindi kokatzen dituztela.

Berrespen horrek badu oinarririk, esku-hartze hartzaileako emaitzetan ikusten denez; esan nahi baita norbanakoek beren aldetaren pertzepzioa errealitatearekin nahiko ongi doitzen dutela. Aitzitik, parte-hartze sortzailean eta digitalean ikusten denak zerikusi txikia du norbanakoek duten pertzepzioarekin.

Orokorki, laginaren osaera kontuan hartuz, lagina osatzen duen publikoak —interesa duen publikoa eta halako ekitaldietara, gutxienez, noizean behin joan ohi dena— astirik eza hautatu du eragozpen nagusitzat. Horien artean, kultura-eskaintzarekiko interesa, egiaz, igoyerarako faktore bat da, jaitsierakoa baino gehiago.

3.3. Kultur arloko parte-hartze mailaren bilakaera baldintzatzaileak

Xedea

- Asti handirik izaten ez denean, parte-hartze maila jaitsi egiten da, eta alderantziz.
- Ikasketa-maila handiagoa denean, parte-hartze maila areagotu egiten da.
- Bizilekua hiri handietara aldatzen denean, parte-hartze maila areagotu egiten da, eta alderantziz.
- Seme-alabekin bizitzen denean, parte-hartze maila jaitsi egiten da, eta alderantziz.
- Soldata bat (lana) edukitzen denean, maila areagotu egiten da.
- Soldata igotzen denean, parte-hartze maila areagotu egiten da.
- Kultura-jarduera gehiago balioestea eragiten duen jarrera-aldaketak gertatzen direnean, parte-hartze maila areagotu egiten da.
- Kultura-jarduerak egitearekin bateraezinak diren zaletasunak direnean, kultur arloko parte-hartze mailek behera egiten dute; aitzitik, bateragarri diren zaletasunak izanez gero, maila igo egiten da.
- Abonuak eskuratzeak, areagotu egiten da kultur arloko parte-hartzea.

Zer neurtzen da?

Lehenik eta behin, parte-hartze mailetan (hartzailean, sortzailean eta digitalean) izandako aldaketa neurtzen da.

Bigarrenik, azalpen-aldagaietan izandako aldaketa neurtzen da (honelako egoera-aldaketak kontuan hartuta: seme-alabekin bizitzea, ikasketa-maila handiagoa izatea, kultura gehiago balioestea, edo soldata bat izatea etab).

Nola neurtzen da?

Ikergaiari dagokionez, aurrez azaldutako modu berean egiten da, baina birkodetzera iritsi gabe:

1. Parte-hartze modu bakoitzerako 0-1 bitartean aldatzen den indize bat eratzen da: 0 parte-hartze nuluaren maila da, eta 1 gehieneko parte-hartze maila. Norbanakoak 0 eta 1 zenbakien artean kokatzen dira, indizeak osatzen dituzten jardueretan duten parte-hartze mailaren arabera ([Eranskinean](#) zehaztua). Hori 2. jasoaldiko eta 3. jasoaldiko datuetarako egiten da.
2. Bigarrenik, 3. sortan norbanako bakoitzak indize bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) eskuratutako puntuazioari 2. jasoaldian horietan eskuratutako puntuazioa kentzen zaio. Horretara, jasoaldien arteko diferentzia lortzen da.

Azalpen-aldagai dagokienez, antzeko metodo bat jarraitzen da:

1. Kalkulua egin aurretik aldagai guztietako kategoriak modu arruntean kodetuta daudela egiaztatu da, eta, beharrezkoa izan bada, birkodetu egin da, ezberdintasuna kalkulatzeko emaitzak jasoaldien arteko igoera edo jaitsiera modura irakurri ahal izateko.
2. Horrela, jasoaldien arteko emaitzetan diren ezberdintasunak kalkulatu dira. 3. jasoaldiko aldagai bakoitzaren balioak 2. jasoaldian eskuratutako balioei kentzen zaizkio. Horrela, Oko emaitza lortzen da aldaketarik egon ez bada (esate baterako, 2. jasoaldian hiri ertain batean bizi bazen eta halaxe jarraitzen badu). Aitzitik, emaitza negatiboek jaitsiera adierazten dute (hiri txikiago batean bizitzera joatea, adibidez) eta aldaketa positiboek igoera (adibidearekin jarraituz, hiri handiago batean bizitzera joatea).
3. Emaitza horiek birkodetu egin dira, igoera eta jaitsiera kasuak soilik gordetzeko, alde batera utzita mantendutako kontsumoen emaitzak.

Azalpen-aldagaien inpaktua aztertzeko, igoera bat izan den kasuetarako eta jaitsiera bat izan den kasuetarako, jasoaldien artean parte-hartze maila dagokienez izandako aldeari erreparatu zaio².

Gainera, aldagai bakoitzaren inpaktua neurtzen da, aintzat hartuta zer alde dagoen aldagaia igo denean eta jaitsi denean parte-hartze mailan izandako aldaketaren puntuazioan. Adibidez, aldagai hori areagotzean parte-hartze mailaren aldaketako puntuazioa +0,3 izan bada eta jaistean -0,2, inpaktua 0,5ekoa da.

Emaitzak


Aldagaiak 4 dimentsiotan multzokatuz azaltzen dira emaitzak, eta horietako bakoitzak parte-hartze bakoitzean (hartzailea, sortzailea, digitala) zer-nolako inpaktua duen aztertuko da:

Hezkuntzaren eta ekonomiaren arloko dimentsioa	Bizi-testuinguruaren dimentsioa	Astia	Kulturaren posizioa
<ul style="list-style-type: none"> – Ikasketa-maila – Soldata izatea (lan-egoeraren arabera mendekotasun ekonomikoa, lan-jarduna edo lanik eza) – Diru-sarrera maila 	<ul style="list-style-type: none"> – Seme-alabekin bizitzea – Hiriaren tamaina 	<ul style="list-style-type: none"> – Astia (aste barruan) – Astia (asteburuan) 	<ul style="list-style-type: none"> – Kulturaren garrantzia – Zaletasun bateraezinak – Zaletasun bateragarriak – Abonua

² Puntu honetan, era berean, birdoitze txiki bat egin da, datuak errazago irakurtzeko; izan ere, parte-hartze mailan jaitsiera orokorrerako joera izateak eragina zuen emaitzetan. Horretarako, alde orokorraren batezbestekoa kendu zaie aintzatetsitako balioei.

Aldaketa positiboa ala negatiboa gertatzen den kontuan hartu gabe, aldagai bakoitzaren inpaktuari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da lehendabizi.

6. grafikoa. Aldagaien inpaktuaren ikuspegi orokorra, batezbestekoetan sorrarazten dituzten aldean araberakoa




Aldagai bat argiro nabarmentzen da besteen gainetik: seme-alabekin bizitzeari dagokiona, hain zuzen. Azken jasoaldiaren txostenean jadanik hauteman zen funtsezko aldagaia zela esku-hartze hartzailako patroien artean bereizteko paneleko laginean. Kasu honetan, xehetasunezko azterketan ikusiko den moduan, eragin handia erakusten du parte-hartze sortzailearen aldaketan (negatiboa).

Distantzia handira, gainerako aldagaiek pixkanaka gero eta inpaktu txikiagoko balioak agertzen dituzte, ia nulua diru-sarreretan eta asteburuko denbora librean.

Hezkuntza eta ekonomiaren arloko dimentsioari dagozkion aldagaiak

Lehenik eta behin, parte-hartze modu bakoitzeko aldagaien inpaktu osoa ikusten da. Ikasketa-mailaren kasurako, ezinezkoa da neurri hori kalkulatzeko; izan ere, gora baino ezin du egin, eta ezin da murriztu.


7. grafikoa. Aldagai bakoitzaren inpaktua, parte-hartzeetako batezbestekoei dagokienez eragiten duen aldearen arabera



Bereziki interesgarria da diru-sarreraren mailak ez duela inpakturik, baina bai soldata bat izateak (mendekotasun ekonomikoa lan-egoeraren arabera, lan-jarduna edo lanik eza).

8. grafikoa.

Parte-hartzean den aldearen batezbestekoa, aldagai bakoitza igo ala jaitsi egiten den kontuan hartuta



Aldagai bakoitzaren igoeren edo jaitsieraren eragina espezifiki begiraturaz ikusten denez, **soldata bat izateak** (mendekotasun ekonomikoa lan-egoeraren arabera, lan-jarduna edo lanik eza) inpaktu handia du parte-hartze hartzailean, eta eragin nabaria du, halaber, parte-hartze sortzailean eta digitalan:

- Parte-hartze hartzailean, mendekotasun ekonomikoa handiagotuz gero, nabarmen jaisten da parte-hartzea. Parte-hartze sortzailean ere gauza bera gertatzen da, baina inpaktua txikiagoa da (jaitsierarekin lotuta dago, baina neurri txikiagoan).
- Parte-hartze digitalaren kasuan, interesgarria da aipatzea mendekotasun ekonomikoaren igoerak parte-hartze digitala bultzatzen duela eta alde positiboak –hots, igoerak– sorrarazten dituela jasoaldien artean.


Ikasketa-mailari dagokionez, beste aldagai batzuekin baino ezin da alderatu, eta ezin da erkatu igo ala jaitsi egiten diren (ezin baitute jaitsi). Igotzen diren kasuetan:

- Esku-hartze hartzailean alde positibo txikiekin lotzen da, parte-hartze sortzailean ez bezala, azken horretan alde positibo handiagoekin lotzen baita; hortaz, parte-hartzea igotzea ahalbidetzen duen faktore bat da.
- Parte-hartze digitalaren kasuan, ez da eraginik hautematen.

Bizi-testuinguruaren dimentsioari dagozkion aldagaiak


Lehenik eta behin, aldagaien inpaktuaren grafikoa erakusten da.

9. grafikoa. Aldagai bakoitzaren inpaktua, parte-hartzeetako batezbestekoei dagokienez eragiten duen aldearen arabera



Hiriaren tamainak eragin erlatiboa du, seme-alabekin bizitzeak, berriz, eragin nabarmena.

10. grafikoa. Parte-hartzean den aldearen batezbestekoa, aldagai bakoitza igo ala jaitsi egiten den kontuan hartuta




Seme-alabekin bizitzeari erreparatuz, parte hartzeko modu guztietarako ia patroi bera ikusten da:

- Seme-alabekin bizitzeak (hau da, seme-alabak izatera edo haiekin bizitzera igarotzeak) eragin negatibo nabaria du kultur arloko parte-hartzean.
- Beste hiri batera aldatzeak (hiri handiagoa edo txikiagoa den) ez du halako eragin adierazgarria. Hala eta guztiz ere, parte-hartze hartzailearen kasuan, hiriaren tamaina handitzeak (hiri handiago batera aldatzeak) alde positiboak erakusten ditu jasoaldien artean. Parte-hartze sortzailearen eta digitalaren kasuan (bereziki azken horretan) hiri handiagoetara igarotzea parte-hartzea gutxitzearekin lotzen da.

Astiaren dimentsioari dagozkion aldagaiak


Hasteko, dimentsio honetako aldagaien inpaktuaren laburpena aurkezten da.

11. grafikoa. Aldagai bakoitzaren inpaktua, parte-hartzeetako batezbestekoei dagokienez eragiten duen aldearen arabera



Ikusten denez astiak ez du aparteko eraginik asteburuan.

12. grafikoa. Parte-hartzean dagoen aldearen batezbestekoa, aldagai bakoitza igo ala jaisten den kontuan hartuta



Asteburuko denbora libreari dagokionez, haren igoera edo jaitsiera ez da lotzen kasu bakoitzeko parte-hartze indizeetan diren alde handiago edo txikiagoekin.


Dirudienez, aste barruko denbora librearen zenbatekoak hobeto erakusten du astia izateak duen eragina. Beraz:

- Parte-hartze sortzailearen kasuan, itxura batean, eragina handiegia ez bada ere, parte-hartze hartzailearen kasuan denbora libre handitzeak lotura du jasoaldien arteko alde positiboekin.
- Parte-hartze digitalaren kasuan gauza bera gertatzen da, baina askoz nabarmenago.

Kulturaren posizioaren dimentsioari dagozkion aldagaiak


Azkenik, kulturarekiko interesari eta haren abaguneei dagozkion aldagaiak aurkezten dira bloke honetan.

13. grafikoa. Aldagai bakoitzaren inpaktua, parte-hartzeetako batezbestekoei dagokienez eragiten duen aldearen arabera



Kultura norberaren bizitzako alderdi garrantzitsu modura balioesteak eragin handia du parte-hartze hartzailean. Halaber, azpimarragarria da abonuek parte-hartze digitalean duten eragina. Bestalde, zaletasunek eragina dute batez ere parte-hartze sortzailearen eta digitalaren garapenean, ez horrenbeste parte-hartze hartzailearen kasuan.

14. grafikoa. Aldagai bakoitzaren inpaktua, parte-hartzeetako batezbestekoei dagokienez eragiten duen aldearen arabera



Kulturaren garrantziak leku nabarmena du parte-hartze hartzailearen kasuan, baina ez horrenbestekoa parte hartzeko beste moduei erreparatzen badiegu:

- Kultura, hala, garrantzitsutzat jotzen da garapen pertsonalerako, eta alde positiboa eragiten du horrek esku-hartze hartzailean. Aitzitik, balioespen hori jaiste negatibotzat jotzen da.
- Parte-hartze sortzailearen edo digitalaren kasuetan patroi bera ikusten da, baina eragina oso ahula da.

Beste zaletasun batzuk izateak, kultur arloko parte-hartzearekin bateragarri izan zein ez, zera erakusten du:

- Esku-hartze hartzailearen kasuan zaletasunak areagotzea, oro har, berekin dakar jasoaldien artean alde negatiboak izatea. Hala ere, aldeak txiki samarrak dira.
- Parte-hartze sortzailearen eta digitalaren kasuetan, aldiz, zaletasun bateragarrietan jaitzierak dairenean, alde negatibo handiagoak ikusten dira jasoaldien artean. Alderantziz, zaletasun gehiago izateak alde positiboak eragiten ditu jasoaldien artean, parte-hartze sortzailean eta digitalean.

Azkenik, abonua eskuratzeari dagokionez:

- Oro har, abonua kopurua igotzeak eragin positiboak ditu parte-hartze digitalean.

Interpretazioa

Lehenik eta behin, parte-hartze modu bakoitzerako faktore nagusiak nabarmendu behar dira:

- Esku-hartze hartzailearen kasuan, honako faktore hauek hartzen dute garrantzi handiena: seme-alabekin bizitzea (seme-alabekin bizitzeak kontsumo-maila murriztea dakar), soldata bat izatea (lanik ez izatera igarotzea), kulturari garrantzia ematea (berezko nortasunaren osagai modura zenbat eta garrantzi handiagoa izan, orduan eta handiagoa da kontsumoa) eta, azkenik, astia izatea (zenbat eta asti handiagoa izan, orduan eta kontsumo handiagoa).
- Parte-hartze sortzailearen kasuan, seme-alabekin bizitzearekin lotzen den faktorea bereziki garrantzitsua da, eta ikasketa-maila igotzea ere azpimarragarria da. Gainera, kasu honetan, beste zaletasun batzuk izateak, itxura batean, kultur arloko parte-hartzea bultzatzen du.
- Parte-hartze digitalean bi faktore nabarmentzen dira argi eta garbi: asti handirik ez izatea (kontsumo digitalaren mesedetan) eta abonua eskuratzea. Azken faktore horri dagokionez, badirudi ikus-entzunezko eduki digitaleko plataformen hedapen-fenomenoa dela.

Filmak ikustea da jarduera hedatuena (ia jende orok ikusten ditu). Berez, uste izatekoa da plataforma digital horiekin indartu egin dela aurreko txostenean jadanik hautematen zen jardunbidea —orduan bertsio “analogikoa” (fisikoa, ez digitala)— zeinak bi ezaugarri baititu: jende artean zabalduena izatea eta kultura-profil guztiek erabiltzea.

Interesgarria da, halaber, bi egoera hauek alderatzea: soldatarik ez izatetik soldata bat izatera igarotzea, batetik, eta, bestetik, diru-sarrera txikia izatetik handiagoa izatera. Bigarren faktoreak ez du halako eraginik, baina lehenengoak bai. Interesa duten eta, gutxienez, aldizka kultura-ekitaldietara doazen kasuan, badirudi diru-sarreraren kopurua ez dela horren faktore erabakigarria: alegia, diru-sarrera txikiagoak ala handiagoak izatea ez da erabakigarria; diru-sarrerak izatea ala ez izatea da erabakigarria. Emaitez itxura batean adierazten dutenez, neurri handi batean lehenetsun kontua da, baina ezinbestekoa da oinarri material bat izatea (diru-sarrerak izatea, edozein dela ere diru-sarrera maila).

3.4. Gaineratutako aldagai berrien azterketa

Xedea

Jasoaldi honetan, aurreko bietan izandako esperientziatik abiatuz hobetzeko prozesu gisa, 3 aldagai gaineratu dira:

- Seme-alaba kopurua
- Hil-bukaerara iristeko zailtasuna
- Kultura-kontsumorako arrazoi nagusia

Aldagaiok duten azalpen-ahalmenari erreparatzea da helburua. Hala ere, momentuz, zeharkako kutsua duten hipotesiekin baino ezin da aztertu.

Zer neurtzen da?

Bakoitzak duen inpaktua neurtzen da, esku-hartze hartzaile, sortzaile eta digital mailekin lotuta.

Nola neurtzen da?

Parte-hartze mailak neurtzeko aldez aurretik azaldutako indizeen kalkulua egiten da. Indize horiek 0 eta 1 bitartean aldatzen dira, zenbait jarduera kontuan hartuz parte-hartze maila islatzeko.

Honela neurtzen da azalpen-ahalmena:

- Aldagai jarraituen kasuan, Pearsonen korrelazio-koefizientea erabiltzen da.
- Motibazio psikologiko nagusien kasuan, batezbestekoen arteko erkaketa erabiltzen da.

Emaitzak

Kultur arloko gutxieneko parte-hartzea duten pertsonen kasuan, laginean agertzen direnenak kasu, zailtasun ekonomikoek ez dute zerikusirik kultur arloko parte-hartzearekin, ez positiboki eta ezta negatiboki ere.

8. taula. Seme-alaba kopurua eta hil-amaierara iristeko zailtasuna aldagai gaineratuen eta mendeko aldagai nagusien arteko korrelazio-koefizienteak		
	Seme-alaba kopurua	Hil-bukaerara iristeko zailtasuna
Parte-hartze hartzailea	-,148*	-,070
Parte-hartze sortzailea	-,142*	,002
Parte-hartze digitala	-,183*	-,040

* Izartxoek korrelazio adierazgarria erakusten dute 0,05 mailan.

Seme-alabak izateari dagokionez, hautematen da bai eragin negatiboa kultur arloko parte-hartzearekin lotuta, seme-alabak izan ala ez izatearen arabera. Seme-alaba kopuruak gora egiten duenean, parte-hartzea murriztu egiten da. Dena den, aurreko jasoaldiaren txostenean ere ikusi zenez, seme-alabak izanda, nahiz eta gehiago kontsumitu ez, mota desberdinetako produktuak kontsumitzen dira sarritan.


Motibazio psikologikoei erreparatuz, interesgarria da horiek nola kuantifikatzen diren ikustea, premia batzuk edo beste batzuk izateak parte-hartzean zer-nolako eragina duen ikusi aurretik.

9. taula. Motibazio psikologiko nagusien kuantifikazioa		
Motibazio psikologikoak	Adierazlea	Ehunekoak
Premia emozionalak	Sentipen berriak bizitzea, egunerokotasunetik irtetea	% 30,0
Kultur arloko premiak	Nire ezagutza hobetzea	% 17,5
Premia sinbolikoak:	Norberaren burua garatzea. Nire interes eta premia pertsonalak asetzea	% 25,5
Gizarte-premiak	Esperientzia partekatzea, nire ingurukoekin harremanetan jartzea	% 26,0

Premia emozionalak dira ohikoenak; ondoren datoz premia sinbolikoak eta gizarte-premiak. Kultur arloko premiak, berriz, ezohikoenak dira.

Parte-hartze mailen gainean eraginik dagoen ala ez behatuta, zera ikusten da:

15. grafikoa. Motibazioen eta parte-hartze mailen arteko harremana



Kultur arloko premiak eta premia sinbolikoak —ezagutzarekin eta norberaren burua garatzearekin lotuak— dituzte batezbesteko handienak parte hartzeko modu guztietan. Parte-hartze sortzailean motibazio sinbolikoa, norberaren burua garatzekoa eta norberaren asebetetzearen motibazioa nabarmentzen da. Digitalean, berriz, kultur arlokoa, ezagutza areagotzearekin lotua.

Azkenik, nagusiki gizarte-motibazioak edo motibazio emozionalak dituzten norbanakoen parte-hartzea apur bat txikiagoa da.

Interpretazioa

Seme-alaba kopuruari dagokin aldagaiaren bidez lortutako emaitzek indartu egiten dute aurreko txostenean kultur arloko parte-hartze profilen edo patroien bidez ikusitakoa: alegia, seme-alabak izateak ugaltu egiten ditu kontsumitutako kultura-ekintza motak. Horrela, seme-alabak izateak parte-hartzean eragin negatiboa duela ikusten bada ere, ez du halako eragina orotariko kulturaren kontsumoari dagokionez.

Gainera, bereziki interesgarria da gogoetagai hartzeko ea motibazio ezberdinek eragin kuantitatiboa ote duten kultur arloko parte-hartze mailan. Lehenengo emaitza hauei so, badirudi baietz. Premia kultural eta sinbolikoek kulturaren berezko balioarekin dute batez ere zerikusia, eta premia sozial eta emozionalak balio instrumentalagoa dute. Berezko izaera hori, funts hori, lagungarri izan daiteke ulertzeko premiak, oro har, kultur arloko parte-hartzea sustatzen dutela, eta batzuek, zehazki, areagotu ere egiten dutela.

Txosten honetan, panelaren diseinuari esker, aldagaiei denbora-kausaltate dimentsioa ematen dieten zenbait datu eskaini dira.

Lehenik eta behin, bi jasoaldien artean parte-hartze mailak mantentzeko joera irmoa hauteman da. Nolanahi ere, % 20-30 inguru, parte hartzeko moduaren arabera, negatiboa izan da gehienbat, baina joerak orekatuta nolanahi ere: izan ere, parte-hartzean izandako igoerak 2. jasoaldian maila apalagoak izatetik datoz, eta jaitsierak maila handiagoak izatetik. Parte hartzeko modu sendoena, mantentzeko joera handiena parte-hartze sortzaileak erakutsi du (nahiz eta igoera ia hautemanezina izan den, jaitsiera ez bezala), amateurrek diren jarduera artistikoen garapenari lotua.

Inkesta bete dutenek denboraren faktorea —agerikoa edo ezkutukoa hainbat alderditan, familiako erantzukizunarekin lotuta kasu— adierazi dute jaitsiera-faktore nagusitzat, baina igoera- eta mantentze-faktore modura ere aipatu da. Haren garrantzia maila objektiboan ere hautematen da. Hala, seme-alabekin bizitzeak eragin handia du parte-hartze mailetan. Astiari buruz zehatz-mehatz hitz eginez, interesgarria da ikustea aldagai adierazgarriena aste barneko astiarekin lotzen dela eta asteburuko astialdiak, berriz, garrantzirik ez duela. Halaber, emaitzak lagungarri dira diru-sarreraren irakurketa doitzeko: interesa duen eta, gutxienez, aldi behin kultura-ekintzetan parte hartzen duen jendearentzat soldata bat izatea ala ez izatea da garrantzitsua, eta ez horrenbeste zenbateko diru-sarrera maila duen. Lehentasun kontua da, baina oinarri materiala izatea ezinbestekoa da.

Bizi-zikloaren, astiaren edo kultur arloko parte-hartzearen balioak garrantzitsuak dira, eta horrek indartu egiten du honako hipotesia: hots, interesa duen eta, gutxienez, aldi behin kultura-ekintzetan parte hartzen duen publikoarentzat ezberdintasun sozial eta egiturazkoak eta, are, ekonomikoak ez dutela halako garrantzirik.

Hain zuzen, ideia hori berresten du txosteneko azken atalak, gehitutako aldagai berriei buruzkoak. Atal horretan, era berean, motibazio psikologikoen parte-hartze mailekin duten lotura hautematen da, eta aldeak igartzen dira eraginaren arabera: premia kultural eta sinbolikoen parte-hartzea sustatzen dute, eta premia sozial eta emozionalak, aldiz, ez horrenbeste.

ERANSKINA 1. 3.1. ataleko taula-eranskina

1.1. eranskina. Jatorrizko esku-hartze hartzailearen indizeak (2. jasoaldia) esku-hartze hartzailearen jasoaldien arteko aldaketa-ibilbidearen arabera

Aldaketa-ibilbide mota parte-hartze hartzailearen, 2. eta 3. jasoaldien artean.	Esku-hartze hartzailea 2. Jasoaldia (Abiapuntua)
Jaistea	,4050
Mantentzea	,2832
Igotzea	,2040
Guztira	,2992

1.2. eranskina. Jatorrizko esku-hartze hartzailearen indizeak (2. jasoaldia) esku-hartze hartzailearen jasoaldien arteko aldaketa-ibilbidearen arabera

Aldaketa-ibilbide mota parte-hartze sortzailean, 2. eta 3. jasoaldien artean	Esku-hartze hartzailea 2. Jasoaldia (Abiapuntua)
Parte-hartze sortzailea jaistea	,3377
Parte-hartze sortzailea mantentzea	,0584
Parte-hartze sortzailea igotzea	,0519
Guztira	,1088

1.3. eranskina. Jatorrizko parte-hartze indizeak (2. jasoaldia) jasoaldien arteko aldaketa-ibilbide bakoitzaren arabera


Aldaketa-ibilbide mota parte-hartze digitalean, 2. eta 3. jasoaldien artean	ESKU-hartze hartzailea 2. jasoaldia	Parte-hartze sortzailea 2. jasoaldia	Parte-hartze digitala 2. jasoaldia
Jaistea	,2895	,1378	,4756
Mantentzea	,3073	,1044	,3745
Igotzea	,2589	,0952	,2639
Guztira	,2992	,1088	,3787

1.4. eranskina. Jasoaldien arteko aldaketaren xehetasuna parte-hartze sortzailean

	2. jasoaldia	3. jasoaldia
Jarduerarik ez	% 46,6	% 63,2
1 jarduera	% 23,3	% 21,2
2 jarduera	% 11,9	% 8,8
3 jarduera	% 7,8	% 6,2
4 jarduera	% 4,1	% 0
5 jarduera edo gehiago	% 6,2	% 0,5

ERANSKINA 2. Aldaketaren arrazoi subjektiboa ibilbide objektiboaren arabera

Inkesta bete dutenek adierazten dituzten arrazoi nagusiak aldaketa-ibilbide objektiboaren arabera (%)



ERANSKINA 3. Aldagaien kodetzea

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Deskribapena
Adina G2	Aldagai jarraitu bat da, jaiotze-urtearen arabera eraikia. Gogoan izan behar da laginak 18-39 urte bitarteko norbanakoak hartzen dituela barne.
Sexua G1	Aldagai bitarra da, non 0 zenbakiak gizona identifikatzen duen eta 1 zenbakiak emakumea.
Udalerriaren tamaina G5	4 kategorien arteko aldea : 1. <5000 2. 5000 a 20000 3. >2000 4. 4.Hiriburuak
Seme-alabekin biziitzea G6	Seme-alabekin bizi direla (1. kategoria) eta gabe bizi direla (0 kategoria) adierazten duten kategorien artean G6 aldagaia birkodetuta eraikitzen da. Bizikidetzeta-moduei buruzko aldagaiaren bidez seme-alabak izateak zer eragin duen ikusteko modua da.
Amaitutako ikasketa-mailak G7	Guztira 8 kategoriak osatua, amaitutako ikasketa-maila apalagotik gorengora.
Hizkuntza G10	Zein hizkuntza erabiliz sentitzen den eroso adierazten du: euskara (1) gaztelania (3) eta "biak" (2). Besterik aukera ezabatu egin da (kasu bakarra).
Soldata/lana izatea G12	G12 aldagaia 2 talde handitan birkodetuz eraikitzen da: ekonomikoki mendekoak (1 zenbakiarekin kodetua: ikasleak, langabetuak eta ezintasun iraunkorduna) eta independenteak (0 zenbakiarekin kodetua: beren konturako edo besteren konturako langileak).
Lanaldia G13	3 kategoria, hots, lanaldi erdia baino gutxiago (1), lanaldi erdia (2) edo lanaldi osoa (3). Soilik egun lanean ari direnentzat.
Diru-sarrerak G14	Hileko diru-sarreraren 6 tarte, diru-sarrerarik gabe mailatik 2000 baino gehiagoko diru-sarrerak mailara arte.
Oinordean hartutako kultura-kapitala	<p>Hurrengo aldagaiak batuz eraikitzen da, horien neurketa estandarizatuz, eta Otik 1 era mailakatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Liburuak etxean haurtzaroan • Musika-tresnak haurtzaroan • CD grabagailua, irratia, musika-ekipamendua edo binilozko disko ekipamendua haurtzaroan • Idatzizko prentsa etxean haurtzaroan • Museo edo galerietara, antzokira, ikuskizunetara, dantzara, kontzertuetara, liburutegietara edo zinemara joatea haurtzaroan. • Haurtzaroko kultura-jarduerak: irakurtzea, marraztea, istorioak idaztea, musika jotzea <p>Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriarekin daude osatuta: Sekula ere ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da.</p> <p>Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera.</p>

.../...

.../...

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Deskribapena
Amaren eta aitaren ikasketa-maila G15a eta G15b	Ikasketa-maila aldagaia bezalaxe. Ez da modu sistematikoan barneratzen; izan ere, 1. jasoaldian ikusi zenez, haren eragina zeharkakoa zen batez ere, oinordean hartutako kultura-kapitalaren arabera.
Astia G22 G23	1 etik (asti urria) 4ra (handia), denbora librea neurtzen du aste barruan (G22) edo asteburuan (G23).
Kultura-jardueraren garrantzial G24	1-10 bitarteko eskala batean norbanakoarentzat kultura-jardueretan parte hartzeak duen garrantzia neurtzen du.
Zaletasun eta okupazio alternatiboak	0-1 bitartean aldatzen den indize bat da (gutxiagotik gehiagora), beste zaletasun batzuetara eskainitako denboraren arabera eraikia: <ul style="list-style-type: none"> • Kirola • Bideo-jokoak • Gastronomia • Etxeko zereginak • Turismoa • Lagunak
Gizartearen eragina G30	Norbanakoak bere ingurunearen gainean duen pertzepzioaren arabera neurtzen da eragina, kategoria hauek bereiziz: <ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura-jarduera urriagoa da bere ingurunearekin alderatuz 2. Berdina da 3. Handiagoa da
Asoziazionismoa G54	Kultur elkarteren batean duen parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzen da <ol style="list-style-type: none"> 1. Bakar batean ere ez 2. Batean 3. Bat baino gehiagoan
Kultura-abonua G44	Jarduera/ekipamendu baterako kultura-abonuren bat izatearekin ala ez izatearekin lotutako informazioa jasotzen da: <ol style="list-style-type: none"> 0. Ez 1. Bai
Ibilbide subjektiboa	Inkesta bete duenak berak aurreko jasoaldiarekin alderatuz berarengan hautematen duen bilakaera-ibilbidea jasotzen da. Parte-hartze maila orokorra begiratzen da. 3 kategoria ditu: Nire kultur arloko parte-hartzea jaitsi egin dut, mantendu egin dut eta igo egin dut.
Arrazoi subjektiboak (Hautaketa anizkuna + arrazoi nagusia)	Jasoaldien artean kultur arloko parte-hartzean izan den bilakaerarekin lotutako arrazoi zerranda bat da. Norberak hautemandako ibilbideari buruz galdetzen da. Norbanakoek garrantzitsutzat jotzen dituzten arrazoiak modu anizkoitzean hautatzeaz gain, beren ustez arrazoi nagusia dena ere hautatzen dute.

.../...

.../...

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Deskribapena
Parte-hartze sortzailea	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), burutzen diren kultura-jardueren kopurua neurtzekoa. Guztiek dute garrantzi bera. Aldagai dikotomikoak dira.</p> <p>Honatz indizean sartzen diren aldagai/jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Idaztea• Margotzea• Arte plastikoak• Argazkigintza• Bideoa• Ikus-entzunezkoak• Bertsolaritza• Antzerkia• Dantza• Musika• Bestelakoak
Esku-hartze hartzailea	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren intentsitatea neurtzekoa.</p> <p>Honakoak dira aldagaiok:</p> <ul style="list-style-type: none">• Irakurritako liburu kopurua• Ikusi-entzundako kontzertu kopurua• Zinemara joateko maiztasuna• Ikuskizunetara joateko maiztasuna• Erakusketetara joateko maiztasuna <p>Maiztasun-aldagaiak 5 kategoriekin osatuak dira: Sekula ere ez, behin, bitan, 3-5 aldiz eta 5 baino gehiagotan. Maila bakoitza 0 eta 1 bitarteko balioak emateko mailakatzen da.</p> <p>Beste aldagaiak birkodetzearen ondorio dira, 0-1 bitarteko kontsumo-mailaren arabera.</p>
Kontsumoaren aniztasuna / Orotariko kultura	<p>0-1 bitarteko indize bat da (gutxiagotik gehiagora), indizean garrantzi bera duten aldagaietatik abiatuz kontsumoaren Aniztasuna neurtzekoa. Aldagai dikotomikoak dira (bai/ez).</p> <p>Honakoak dira aldagaiok:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zinema• Liburuak• Kontzertuak• Erakusketak• Zirkua• Haurrentzako antzerkia• Antzerkia• Dantza• Musika• Bertsolaritza• Magia• Literatura-jaialdia• Opera

.../...

.../...

Aldagaia eta galdetegiko erreferentzia	Deskribapena
Parte-hartze digitala	<p>Aldagai dikotomikoetatik abiatuz (bai/ez) 0-1 bitartean kontsumo digitala neurtzen duen indize bat da, eta aldagai hauek hartzen ditu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Internetez musika entzun edo deskargatzea• Internetez liburuak irakurri edo deskargatzea• Internetez telesailak, filmak edo bideoak ikustea• Internetez ikuskizunak ikustea• Internetez kontzertuak ikustea• Internetez erakusketak ikustea• Internetez liburutegian sartzea
Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, jarraitua)	<p>Esku-hartze hartzaileko, sortzaileko eta digitalerako kalkulatu da. 3. jasoaldiko indizearen emaitza 2. jasoaldikoari kentzearen emaitzarekin bat dator.</p>
Ibilbide objektiboa (Jasoaldien arteko aldea, kategorien arabera)	<p>Jasoaldien arteko aldea (Jarraitua) 3 kategoriatan birkodetzen da: Igotzea, mantentzea eta jaistea.</p> <p>Mantentzetat jotzen da, desbideratze tipikoaren emaitza 0 +- denean.</p> <p>Igoeratzat edo jaitsieratzat jotzen da, tarte horretatik kanpo balio positiboak ala negatiboak, kasuaren arabera, sortzen direnean.</p>